



ZUHATZAKO UDALEKUKO ARAUAK

- Prezioan sartzen da:
 - Zuhatzako aterpetxean mantenu osoa
 - Egunero ordu bete eta erdiko ur ekintzak: Optimis, piragua, remo, pedalo, winsurf....
 - Autobusa Donostiatik Zuhatzara joan-etorria
 - Ekintzak, jolasak eta tailerrak burutzeko materiala
 - Monitorean erantzukizun zibileko aseguru
- Plaza eskuratzeko formulario bete behar da eta matrikulari dagokion diru sarrera ES58 2095 5009 70 9115085835 kontu korrontean sartu behar da. **Ez ahaztu haurraren abizenak eta izena transferentziaren azalpena jartzea.**
- Baliogabetzeko gastuak: Irteera eguna baino 30 egun lehenago plaza deuseztatzen baduzu ordaindu duzun %100a itzuliko zaizu, 15 eta 30 egunen artean %50a, eta 15 egun hasi baino lehen edo behin hasita ez da ezer itzuliko.
- Udaleku hauen helburua ondo pasatzea eta euskara sustatzea da. Hori dela eta, hurrek euskaraz hitz egiteko gai izan beharko dute.
- Udalekua elkarrekin bizitzeko eta baloreak ikasteko tokia da. Parte hartzailearen batek behin eta berriz elkarbizitza eta lankidetzako arauak beteko ez balitu, udalekutik bidali ahal izango da. Itzulera-gastuak parte-hartzailearen kontura izango dira, beti ere, ezinbesteko arrazoiren batengatik izango ez balitz.
- Parte-hartzaileak ez du dirurik ekarri behar, ezta baliozko objekturik ere. Ez gara gerta daitekeenaren erantzule egingo.
- Hurrek eramaten duten arropa zikindu eta puskatu daiteke, beraz, eroso eta ez oso garestia izatea gomendatzen dugu.
- Udalekuko honetan hezitzaileek aterako dituzten argazkiak, KIRIKETAN enpresak antolatzen dituen udalekuak zabaltzeko erabiliko ditugu. Arazoren bat baduzu 943 453334 telefonora deitu baimena deuseztatzeko.
- Formulario hau betetzerakoan nire semea edo alabari, KIRIKETAN enpresak antolatzen dituen ekintzetan parte hartzeko baimena ematen diot.